

HKEE-REN PRENTSA OHARRA, OIONGO UDALAREN 2019-KO FISKALIZAZIO TXOSTENARI BURUZKOA

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiaren Osoko bilkurak aho batez onartu du Oiongo Udalaren 2019ko ekitaldiko kudeaketa ekonomiko eta finantzarioaren fiskalizazio txostena.

2019ko ekitaldiko Urteko Kontuei dagokienez, HKEEk **aldeko iritzia** plazaratu du, nahiz kontularitzako doiketak azaleratu diren; horiek erregistratuz gero, Udalaren Gastu Orokorretarako Diruzaintza Geldikina 31 mila euroan murriztuko litzateke. Gainera, Epaitegiak ezin zehaztu izan du Aktibo ez-arrunteko saldoek, 18,1 milioi euro, aktiboaren 2019ko abenduaren 31ko egoera erreala islatzen duten.

Udalak fiskalizazio-gai izan den Kontu Orokorraren egoera finantzarioa aztertu du eta ondorioztatu du Udalaren autofinantzaketarako gaitasunak, sarrera arrunten gainean % 29, egonkor eutsi diola aztertutako aldian eta Toki Erakundeak Finantzatzekeo Foru Funtsetik (FOFEL) eratorritako diru-sarrera nagusiak udal-azpiegituran hobekuntzak egiteko baliatu ditu. Berebat, azpimarratu behar da Udalak ez zuela zorpetzerik 2019ko abenduaren 31n eta data horretan Diruzaintza Geldikin erabilgarria sarrera arrunten % 23,1 zela.

Bestalde, HKEEk azpimarratu du 2020an diru-sarrerek behera egin dutela COVID-19aren pandemiaren ondorioz.

Halaber, txostenak ondorioztatu du Udalaren kontu-hartzaitzak egindako txostenaren arabera, 2019an **aurrekontuaren egonkortasun, zor publiko eta gastuaren araua bete dela**.

Udalak **zuzentasunez** bete du 2019ko ekitaldian ekonomia eta finantza jarduera arautzen duen **lege araudia**, nahiz unean uneko salbuespenak azaleratu diren **Kontratazioaren** atalean (zerbitzu-kontratu baten gehieneko iraupen-epea gainditu da eta kontratu txiki modura izapidetu dira prozedura ireki bidez esleitu behar ziratekeen hornidurako eta zerbitzuetako 4 kontratu).